

Nafarroako Euskararen Legearen erreforma, hirugarrengoa bai

EUSKARAREN LEGEAREN aldetari esker, Nafarroa osora zabalduko da eskola publikoetan euskaraz ikas- teko aukera. Eredu eus- kaldunean eta eremu mis- toan D ereduaren aritzeko aukera bazegoen, baina ez eremu ez-euskaldunean.

Erreformaren alde egin dute PSN, Ezkerra, Geroa Bai, Bildu eta Aralar- NaBaik, eta aurka UPN eta PPNk. Aldeko 27 boto eta kon- trako 23 jaso ditu.

Helburu antzekoa lortzeko hiru- garren saiakera izan da otsailaren 19koa. 1995ean, Eusko Alkartasu- nak eta Alderdi Sozialistak Euskara- ren Legea aldatzea proposatu zuten, Nafarroako ikasle guztiek D ere- duan ikasteko aukera izan zezaten. Ez zuten Parlamentuan bozkatu,



UPNk eta Herri Batasunak aurkako botoa emango zutela iragarri bai- tzuten.

2008. urtean, Izquierda Unidak antzeko lege aldatzea proposatu zuen (murriztaileagoa bazen ere). Oposizioak babesa eman zion, baina Aralar-ko parlamentari baten faltan ezin izan zen lege aldatzea aurrera atera.

Bahea

Mikel Elorzak *Berrian* esanak:

“PSEko gazteek ere aste honetan jarri diote txapela gai horri —txapela baino kapelua, bixera, buru-estaltzaile ez- etniko bat—. Ohartarazi baitigute zein gaizto hartzen ditugun erdaldun elebakarrak, erabateko diskriminazioz. Arrazoi dute: gure jarduera gehienetan euskaldunok ele bietan edo hirutan egitera iritsi gara —lanean, kantuan, antzerkian, liburugintzan...— eta anaidi ezin egokiagoan ibiltzen gara euskaldun eta erdaldunok batez ere kultura alorreko saraoetan, baina gero, distantzia motzenetan, banan-banako horretan, batzuk egoskurtu egiten dira euskaraz egiten. Parekoaren askatasuna urratuz. Eta horixe da balio gorena gaur egungo gizartean, ez dezagun ahaztu: norberak nahi duen hizkuntzan jarduteko askatasuna”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Diru publikoaren arpilatzaileak

SUMATZEN ZEN ustelkeria bazegoela bizitza politiko, sozial eta sindikalean. Orain zenbait kasu azalera- tzen ari dira. Baina nekez urtuko den izeberg izuga- rri baten punta baino ez dira. Interes asko dagoela- ko hori eragozteko. Kasu gehienak Espainiako Estatuan gertatu dira. Jakin dugu, esaterako, CCO- Oren bankuetako federazioak 2008 eta 2012 artean 8,3 milioi euro jaso zituela finantza entitateengan- dik. Alderdi politikoek eta sindikatuak poltsikoak bete dituzte aurrezki kutxen eta erakunde publikoen kontura. Diru-kutxa publikoen arpilatzaileak izan dira, eta Bankia edo Andaluziako EEEak arpilatze horren lehen lerroan daude.

Euskal Herrian, nahiz eta eskala txikiagoan izan, zenbait kasuren berri jakin dugu orain. Kutxaban- kek Espainiako Gobernu-ko ordezkari ohi Mikel Cabiecesi soldata ordaintzen zion “borroka antite- rrorista” izan duen lanagatik, eta horrek Pandora- ren kutxa ireki du. EAJko politikari ohiak (Aurreko- etxea, Zalbidegoitia, Arrieta, Atutxa...), PPkoak (Olazabal) eta PSOEkoak (Buen) zenbait enpresata- ko administrazio kontseiluetan kolokatu dituzte

(Petronor, Zeltia, CAF, CLH...), ondo ordainduta eta Kutxabanken ordezkari gisa. Bestalde, Euskal Herriko alderdi politikoek aurrezki kutxekin zor milioidunak dauzkate hauteskunde kanpainak finan- tzatu ahal izateko eta hori ez dute sekula itzuliko. Adibide gehiago: Epsilon, Bidegi, Hiriko... Hemen ere badaude, beraz, diru publikoaren arpilatzaileak. Kutxabankek euren hipotekei aurre egin ezin dien familia langileak etxegabetzen ditu; enpresa txiki eta familiarrek bizirauteko kredituaren iturria itxita daukate; eta era berean, zenbait alderdi politikok pribilegio mota ugari dituzte. Kutxak —orain Kutxa- bank, baina lehenago Nafarroako CAN— euren txoko bihurtu dituzte.

Entitate horien diruarekin ari dira aberasten zen- bait politikari eta sindikalista, eta egiazko titularrek arpilatzaileen kontra egin behar lukete. Zeren eta Kutxabankek edota beste kutxek, ezin dute inoren txoko izan, gordailugileenak dira, inolaz ere politi- kari edota sindikalistenak.

Juan Mari Arregi